



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

529. zkia.

XIII. urtea

2005eko maiatzaren 13a

**Castañares anaiak**

# **Garateko Zaldunak**

# ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



## ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# Jaika

jatetxea



- 25 - 30 lagunentzako jangela
- 6 - 8 lagunentzako jangela pribatua
- Karta zabala
- Enkarguzko menu bereziak  
15 €tik hasita
- Eguneko menua 7 €

Pedro Muguruza, 27 behea

Tel.: 943 74 10 29



AINHOA MENDIBIL



AMAIA GORROTXATEGI

## ZOZOAK BELEARI...

Iluntzion Amaia.

Entzun Rafa Rueda kantuan: "Oinentzat mesede izan arren, zapatentzat sandaliek eskeletoen antza dute." Jakin ezazu Amaia; azken aste hauek ez dira primerakoak izan niretzat. Ez dut bizitza behar beste bizi, eta oraindik ez dut arrazoi zehatzik argitu.

Barkatu, orain arte esan nahi nuen.

Aspaldiko partez Kimen Uriberen hitz hauek entzutea pentsatu baitut gaurkoan. Jarri dut musika martxan eta eseri naiz lasai askoan Karakatera begira. Eta horra hor ondorengo hitzak: "Gauza perfektuek ikara sortzen didate. Ez ditut atsegin."

Eta horra hor Amaia eta lagunok nire arazoa. Ezin uler dezaket gauzak noizean behin ondo ere joan daitezkeela. Ezin. Pentsatze hutsak beldurtu egiten nau. Nork ez ote du ba pentsatu adibidez, kuadrilakoekin demaseko plana egin, dena ondo joan eta "Ene, azkenian zeezer gaizki urten biha jaku!" Ezin al dugu gozatu? Ezin al dugu ondo dagoena ondo ikusi?"

Perfekturik ez dagoela? Ongi da, baina perfekzioa ukitzen duen zerbait ez dezagun horrexegatik zapuztu.

Behin horrela, beldurtzen gaituena ez baita eta perfektua izaten.

Amaia, halako beldurrik bai?

Patxo bat.

PD Bizi gustura, bizi pozik!

«Ez dezagun  
zapuztu  
perfekzioa ukitzen  
duen zerbait»

AINHOA

«Eman  
diezaiogun  
inperfekzioari  
perfekzio maila!»

AMAIA

Iluntzion Ainhoa.

Triste jartzeko musika jarri dut zure e-mailari erantzun ahal izateko, baina ez dut lortu.

Leihotik zeru urdina begiratu dut eta perfektua da, urdintasunaren perfekzioa apurtzen duen dragoi itxurako laino birjin bat baitago zeru erdi-erdian; zerua perfektu bihurtzen duen inperfekzioa.

Ez al dira izugarriak gauaren beltz perfektua apurtzen duten izarrak?? Ez al dira perfektuak itsasoaren sosegua apurtzen duten olatuak?? Perfekzioa inperfekzioa da.

Eta hobe hala pentsatzea, benetako perfekzioa ez baitugu inoiz ezagutuko; maite duzun pertsonarekin paisaia idiliko batean zauden instant berean Burkina Fason ehundaka haur gosez hiltzen baitaude.

Zertarako existitzen ez den zerbaiten beldur izan?

Filosofadak filosofada, eta asko ez ikusten saiatu arren, argi dago kadukatzen ari den mundu hau perfektioetik oso urrun dagoela, beraz eman diezaiogun daukagunari, inperfekzioari, perfekzio maila!

PD: Ainhoatxo!! Hurrengo hilabetean paranoia hauek utzi eta gai nerabeago bati buruz idatziko dugu, o.k?? Bestela horrenbeste kostata irabazitako fans-ak galduko ditugu!!



PERFEKZIOAREN BILA NENBILELA,  
ONDO ZEBILENA HONDATU NUEN

Claude Monet



## Merkadilloa

Alde batetik eta bestetik mezuak datoz: egunkarietan, BARRENen, buzoietan, paretetan, ... Baina errealitatea bakarra da, gordina: ostegunetan ez daukagu merkadillorik. Etxekoandre, erosle eta herritar naizen aldetik, nahiko defraudatuta sentitzen naiz, eta, kontuz, ez daukat inolako gogorik batzuei eta besteei errua botatzen hasteko. Iraila ezkerro ez daukagu merkadillorik, eta, ondorioz, erosketak egiteko orduan merkadilloak eskaintzen zizkigun abantailak ere (prezio merkeagoak, adibidez) desagertu egin dira. Gure poltsikoek ere ondo igarri dute merkadilloaren kontu hau. Nire gusturako, gogorako edo nahirako, merkadilloak plazan egon behar du (handian, txikian, .... baina herrian), erosleok gogoko tokia dugulako, eta arazoak ez direlako konpon ezinak izango.

**A.M.G. 72509817-V**

## Maribik Gazte Asanbladako bi kide epaitegira eramango ditu

Lerro hauen bitartez Elgoibarko Gazte Asanbladak bat egiten du

Elgoibarko Askatasunak idatzi zuen eskutitzarekin. Elgoibartarrok azken aldian gehiegitan jasan behar izan ditugu "gure" alkatearen prepotentzia aireak, jada 9 hilabete goaz merkadilo barik, udaletxe antidemokratiko honek ostegunetako giroa ere lapurtu digu, eta gaztetxea? Non dago Elgoibarko gaztetxea?

Badira URTE ETA HILABETE BI Elgoibarko gazteok gaztetxe gabe, KALE GORRIAN, daramatzagunak. Eta ez dugu ahaztu hasera batean udalarekin adostutakoa, hots, GAZTETXEA ZENA HUSTU ORDUKO BERRIAN EGONGO GINELA.

Beste behin ere GEZURRA esan zuten, beste behin ere ez dute beraien hitza bete, berriro ere elgoibartarroi aurpegira barre egin digute.

Hau gutxi balitz, uda bukaeran udalak bilera batera deitu zuen Gazte Asanblada etorkizuneko (?) gaztetxeari buruz hitzegiteko, eta hara sorpresa! Bileraren 3/4ak ez ziren gaztetxeari buruz izan, dirudieneguz pegatina eta kartel batzuek alkatea mindu baitzuten, eta bere oihuak entzun ondoren udaletxetik bota gintuen; hori bai, epaitegira eramango gintuela

mehatxatuz publikoki barkamena eskatu ezean.

Denborak aurrera egin du eta Maribik Elgoibarko gazteok kriminalizatzeko asmoarekin jarraitzen du. Ez du nahikoa zapatutan ertzaina eta municipalak gu kontrolatzen jartzearekin, eta herriko bi gazte epailearen aurrera eramango ditu. Herri honetan ez da adierazpen askatasuna bermatzen, ez behintzat alkate honekin. Maribi, arazoa konpondu eta gazteoi dagokiguna, GAZTETXEA, eman beharrean, jarraitu ezazu zure "kruzada" partikularrarekin eta jarraitu salaketak jartzen, ez bik ezta hogei salaketek ere ez baigaituzte isilduko.

Gure ametsak eta proiektuak aurrera ateratzeko, GURE KABUZ ANTOLATZEKO espazio baten alde jarraituko dugu. Urte eta bi hilabete kalean gaude eta herriari dagokion gaztetxea lehen bait lehen martxan izan nahi dugu, beharrezko ikusten dugu, eta horren aurka ez duzu ezer egiterik, ez zuk ez eta testigo bezala eramango duzun zure artaldeak ere.

**HERRI BAT GAZTETXE BAT!**

**ELGOIBARKO GAZTE ASANBLADA**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

**[b]arren**

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorobategi, Imanol Larrataga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar Kokoa KE, Ururzuno, Unai Villena, Aloitx Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## KEXAK

- Herriar batek esan digunez, **Herriko Antzokian ez dute 20 eurotik gorako billeterik onartzen**: "Herriko antzokian 50 eurokoarekin 2 sarrera eskatu nituen, eta 20 eurotik gorakorik ez dutela onartzen esan zidaten. Azkenean eman zizkidaten sarrerak, baina ez zait ondo iruditzen beraien lana erazteagatik kartelxo bat jarri eta horri kasu egin beharra. Zerbitzu publikoa da, sarrerak saltzen dituzte, eta beraien ardura da kanbioak edukitzea".

- Herriar batek esan digunez, **paper kontenedoreetatik kanpo gelditzen diren karto eta paperak zabor biltzaileak eramaten ditu**: "Askotan paper kontenedoreak beteta egoten dira, eta jendeak kanpoan uzten ditu kartoizko kaxak eta paperak. Zaborra biltzeko kamioia etortzen denean dena eramaten du, eta horrela ez da birziklatzen. Kontenedore hauetan kartoizko kaxak sartzea ez da batere eroso, eta jende askok kanpoan uzten ditu. Lekuak badago behintzat barrura sartu beharko lirakeela iruditzen zait".



## TXALOKAK



- Guraso talde batek **Atxutxiamaika Aisialdi Taldea** txalotu nahi du umeentzako krosa antolatzeagaitik: "Aurtengoan ere oso ondo pasatu dugu Atxutxi Krosean. Umeek izugarri disfrutatu dute, eta gurasuok ere, oso ondo pasatu genuen haurrak ikusten. Begiraleek lan bikaina egin zuten, eta eskertzekoa da. Jarraitu horrela!".

Atal honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

**Nola egin online finantza erakundeekiko eragiketak**

Ordainketak, transferentziak, mugimenduak... Edozein unetan eta banketxera joan beharrik gabe egin ditzakezu zure eragiketak Internet bidez, diru eta denbora gutxiago erabiliz.

Sustatzaileak:

**Deba Barrena**  
 maiatzak 19  
**ELGOIBAR**  
 Máquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:  
**902 252 595**  
[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)  
[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Ardatzailea:  
  
**Miramón**  
 Espainia Digitala



## URRUZUNOREN Luma

### Elgoibarko itzulia

Orain dela hiruzpalau urte izan zen, hogeit hamar edo hogeit hamar bat urte nituen nik. Maiatzak lehen bi aste eginak zituen eta gero eta gertuago nuen horrenbeste aldiz aipatu zidaten eguna. Mendira joan zale naiz eta orduan Elgoibarko Itzulian parte hartzea, besterik ez nuen buruan. Gogoan dut nola bezperan goiz oheratu nahi nuen, eta gogoan dut nola ohean jira eta buelta igaro nituen orduak. Ia batere lorik egin gabe abiatu nintzen, beldur ere banintzen, gorputzak zazpi orduko ibilbidean zer esango zidan. Karakateko malda pikoari ekin genion aurrena, hamaika aldiz bertatik igarora nintzen ordurako baina egun hartan inoiz egindako gogorrena iruditu zitzaidan. Jende andana aurrean eta atzean. Amaitu nuen azkenean. Nekearen nekez arratsaldean oheratu eta astelehen goizean esnatu nintzen. Orduetik urtero ezin galduzko hitzordua izango zela uste izan nuen gosaritan, hankak artean ere dardarka nituela.

Ainhoa Lendinez

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]

### ERNESTO ARRIZABALAGA



#### MANDIOLA EGURRAK

- **Zein politikok merezi du benetako egurra?**

Politiko guztiak berdinak dira, nik ez ditut bereizten. Denak diruagatik egiten dute lan.

- **Bizitzak eman dizun egurrik gogorrena?**

Ez dut uste egurrik gogorrena jaso dudarik, oraindik jaso beharko ditut mordoak.

- **Nolako zura, halako ezpala?**

Bai, bakoitzak ikusten duena ikasten du. Hori halaxe da.

- **Ezagutu al duzu egurrezko bihotza duen pertsonarik?**

Bai, tartian-tartian agertzen dira horrelakoak. Lagunik onena dirudienak atzetik ematen dute gero egurra. Tokatu zait bat edo beste.

- **Pinotxori bezala, gezurtiei sudurra hazi beharko litzaieke?**

Gezurak esaten jakin egin behar da, eta Pinotxo agerian gelditzen zen beti. Pinotxo bezalakoa hobe ez izatea.

- **Egurrezko eskaierak ala mekanikoak?**

Jende nagusiarentzat mekanikoak ondo daude, baina niretzat egurrezkoak, horrek ematen dit jaten.

- **Egurtu al zintuzten sekula eskolan?**

Ez, eskerrak! Inoiz ez ninduten eskolan jo.

### komikia



Kokae 017

## [AKORDATZEN NAIZ]



**FELISA BERGARETXE**

1915an jaioa

### «Liburuak, zinea, ...»

**G**ure epokan modan irratinobelak egon ziran, bai, baiña ez nitzan oso zalia. Radixua ipiñitta egoten zan, eta entzuten nabari bat, baiña ez naiz akordatzen zein zan.


Neri gehixena txistiak entzuta gustatzen jatan; poztasuna gustatzen jata.

Liburuak ere, etxian eduki, bai, liburu on asko zakaguzen guk, baiña sekula ez dot liburu bat hartu eta irakurtzeko denporarik eduki. Oin, gainera, begixetan kaltziua egiten jata, eta tantak bota bihar izaten dittut, okulistiangana juan eta bistia zaindu. Ez dot irakurtzen.

Zinera, Eibarrera juaten giñan. Pelikula oso polittak egoten ziran epoka haretan, oinguak baiño polittaguak, nere ustetan. Inperio

Argentinak egin zaban *Nobleza baturra* pelikulia gustau jatan asko. Barregarrixa eta tristia zan aldi berian. Pelikula asko ikusten genduzen.

Teatrorra ere asko juaten giñan. Zinera baiño gehixago, seguramente. Zinera gaztiaguak giñanian, eta apur bat hazi giñanian, teatrorra. *Katiuska* obrira izan zan oso ederra. *La dolorosa* ere asko gustau jatan.



Pagau egin bihar izaten zan, baiña beste ezertan ez genduan asko gatatzen, eta bazakagun teatrorra juateko aukeria.

Geuk ere Batzokittik teatro-talde bat osau gendun eta Ermuko Ayuntamentuan egin gendun *Damua garaiz* obrira. Euskeraz zan, eta oso politta. Papel politta eduki nabari, dana kantuan. Oso ondo urten zan. Tristia, baiña graziosua ere bazan.

## [GURE BERBAK]

### Esamolde batzuk (3)

Aurreko batzuetan bezela, gaurkuan ere ariketa moduan beste esaera/esamolde batzuk. Amaittu egizuz goiko multzoko esaera-hasierak beheko multzokuekin. Ebazpenak, azpitan. Azalpenak, hurrengo batian.

- 1 - Zor zaharra ...
- 2 - Urrutiko inxaurrak hamalau, ...
- 3 - Zaharrak ...
- 4 - Zozuak beliar, ...
- 5 - Zer ikusi, ...
- 6 - Kate motzian ...
- 7 - Gu baiño hobeto daguana ...
- 8 - Goixan zerua ...
- 9 - Nagusi biren txakurra...
- 10 - Nolako egurra...

- ... ipurbeltz. - A  
 ... lotu dau aittak semia. - B  
 ... berri. - C  
 ...eta behian lurra dabala geratu da. - D  
 ... gertura juandakuan lau. - E  
 ... ez dago gaizkil- F  
 ... hauraxe ikasi. - G  
 ... zor txarra. - H  
 ... gosiak hill. - I  
 ... halako ezpala.- J

Jesus Mari Makazaga

1-I 4-2-E 3-C 4-A 5-G 6-B 7-F 8-D 9-I 10-J  
**EBAZPENAK:**

## I. URTEURRENA

2004ko maiatzaren 10ean, 67 urte zituela hil zen

*Mari Te re Bastida Zabaletaren*

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, maiatzak 14, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



CASTAÑARES ANAIK

## GARATEKO ZALDUNAK

*Garate baserrian genuen hitzordua Josu eta Igor Castañares anaiekin. Lanetik atera ostean egunero igotzen dira San Migelerako bidean dagoen baserrira, bertan dituzten zaldiei kasu egitera. Duela bost urte sartu ziren buru belarri zaldien munduan eta hiru urte daramatzate zaldi lasterketetan parte hartzen. Ez edonola, gainera, iaz sei lasterketa irabazi baitzituzten bien artean, tartean Elgoibarko Zaldi Lasterketaren estreinako edizioa.*



Duela 5 urte ekarri zuen lehen zaldia Igorrek, "Behorrek beti egon dira Garate baserrian, baina gainean gutxitan ibili izan da norbait. Lehengusina batek ere behor bat zeukan mendian eta txakurrekin Kalamua aldera joaten nintzen bakoitzean gainean ibiltzeko gogoa ematen zidan". Pentsatu eta egin. Osaba eta izebaren laguntzarekin ekarri zuen lehen zaldia

Garate baserrira. Hastapenak ez dira xamurrak izaten, ordea, eta izugarrizko kolpea hartu zuen. "Ezjakintasunez gogorregi tiratu eta lurrera bota ninduen. Zaldi gainean ibiltzeko ideiarik ez neukala konturatzeko balio izan zidan. Aste Santu batean gurasoak Errioxara joan zirela aprobetxatuz, bertan egin nuen ikastaro bat". Eta bai azkar ikasi erel Hamabost egunetara San Pedroko Zaldi lasterketan parte hartu baitzuen. "Han ere pare bat kolpe eder hartu nituen, baina botagarren postuan amaitu nuen ez bizkor ahaztu nituen. Barruan daramat lehiarako grina eta zaldiekin urteak daramatzaten zaldunak egonagatik aurrean ibili nintzen". Anai zaharrak irakatsi zion gazteari zaldi gainean ibiltzen, "Nik hartu behar izan nituen kolpeak berak jaso ez ditzan saiatu naiz". Igor Berrizko Hipikan aritu da lanean duela gutxira arte. Zaldien heziketa, trebakuntza eta oinarritzko zaintzan jarduteaz gain, zaldiak erosi eta saltzen zituen, "Jendeak halako edo holako ezaugarriak zaldiak eskatu eta nik topatu egiten nituen". Han asko ikasi zuela aitortu digu eta orain prest dago ikasitakoak edonori azaltzeko. Hasiberri batentzako, esaterako, zaldi otzan eta 10 urte inguruko aholkatu digu. "Adin horretan asentatuta daude eta egokiak dira oreka hartzen eta zaldia gidatzen irakasteko. Izan ere, zaldiak erakutsi behar dio norberari eta ez alderantziz. Hiru urte eta erdi dituen hasi daiteke zaldi bat hezitzen, 7 urterekin heldutasunera iristen dira eta 20-25 urteko bizi iraupena izan dezakete".

«Zaldia laguna da zaldunarentzat. Konplizitatea sortzen da»



## ZALDIAK ETA AUTOAK

Une honetan 8 zaldi dituzte. Lasterketetarako bana erabiltzen dute; "Indar" Josuk eta "Hodei" Igorrek. Apalooza arrazako zaldi pintto eder bat (portadakoa) ekarri berri dute hazitarako. Gainontzekoak gainean ibiltzeko dira. "Poliki-poliki odol gehiagoko zaldiak ekartzen joan gara, txispa edo bizitasun gehiagodunak, alegia. Hasieran Panda batekin hasi ginen, gero GTletara pasa ginen eta orain M3ak dauzkagu" azaldu digu Igorrek autoen hizkuntzan. Zaldi bakoitzak bere izaera du, eta arraza bakoitzak bere ezaugarriak. "Abiadura da zaldi ingelesen ezaugarri nagusia. Zaldi arabiarrek, beriz, iraupen handia dutelako nabarmentzen dira. Lasterketetarako bi arrazen arteko nahasketa diren angloarabiarrek erabiltzen ditugu". Zaldi perfekturik ez dago Igorrentzat, "bakoitzaren ezaugarri bat hartu beharko nuke zaldi perfektua osatzeko". Anai zaharri "txispa" askoko zaldiak gustatzen zaizkio, zaldi urduri eta gidatzeko zailak, baina "motor" askodunak. Josuk ere irteera biziko zaldiak gogoko ditu, baina berak agindutakoari kasu egiten diotenak, lehenengoan ez bada, bigarregoa.

## GARAIPENEN "CURRICULUM" A

"Gero eta gehiago ibili zaldiak konfidantza hartzen du eta edonora eramaten zaitu. Dena ematen dizute, lehertu arte zure aginduei men egiteko prest dagoela ikusten duzu. Zaldiak eta zaldunak elkar ezagutzeko konplizitate handia sortzen da, lagun bat modukoa da" esanaz azaldu digute animalia hauekiko duten mirespen eta maitasuna.

Egun bateko edo biko zaldi trabesiak hilean behin egiteaz gain, zaldi lasterketetan parte hartzen dute Castañares anaiek, eta trebetasun handia erakutsi dute. Iaz bederatzi lasterketa ospatu ziren Gipuzkoako hainbat herrian eta elgoibartarrak izan ziren dominatzaile

nagusiak, zalantza izpirik gabe. Bederatzi probetatik 3 irabazi zituen Josuk eta beste 3 Igorrek. Garaipenez gain, ia ez ziren podium-etik jaitsi. Aurten estrainekoz Gipuzkoako Txapelketa sortu da eta bederatzi lasterketaz osatuta egongo da. Lehen bi lasterketak Getarian eta Ondarretako hondartzan jokatu ziren neguan eta hurrengoa Abaltzisketan izango da. Elgoibarren San Bartolome jaietan ospatuko da. Lasterketa teknikoak gogoko dituzte bi anaiek, "zaldunaren trebetasuna agerian geratzen den probak atsegin ditugu, bestela zaldirik onenak irabaziko luke beti". Zaldiak entrenatzeko egunero ordubete inguruz gainean ibiltzea komeni dela azaldu digu Josuk: "lasterketak hasi aurretik aurrendenboraldi modukoa egiten dugu. Neguan piska bat loditu egiten ditugu eta lanaren bitartez pisu hori muskulu bihurtzen ahalegintzen gara. Atleten modukoak dira".

**«Zaldunaren trebetasuna agerian uzten duten probak atsegin ditugu»**

Zaldi lasterketa hauek ikusleen interesa piztu dute eta jendea erruz hurbiltzen da azkenaldian. Zaldunak ere gero eta

gehiago eidi dira, "Eskiarekin gertatu den moduan, lehen dirudunek bakarrik zuten aukera baina orain edonork eduki dezake zaldi bat pixka bat saiata. Terrenotxo bat eta txabola bat edukita nahikoa da. Zaldiak gobernatzeko ez da horren garestia: 50 euro hilean pentsutan, desparasitatzeko, eta bi hilean behin perratu behar dira. Lasterketetarako zaldi bategatik 3.000-4.200 euro ordaindu daitekeela azaldu digu Josuk, "merkeago ere lor daiteke zaldi bat, paseoan ibiltzeko bat adibidez, 1.200-1.500 euro artean atera daiteke".

Zaldien gainean zertxobait gehiago ikasi ostean, zaldi eta txakur artean laga ditugu anai biak, baserriko zereginek ez baitute amaierarik.



## [ PROTAGONISTA ]



Axun **Larrañaga**

2005. urteko urtariletik "Urrats bat" programaren arduraduna da Axun Larrañaga. "Urrats bat" programaren helburua Lanbide Heziketako zentroetatik enpresa berriak sortzea da, ikasleei lan mundurako sarbidea erraztuz. Egitasmo honen barruan Euskadiko 15 zentro daude, eta horiek guztiak koordinatzea da Axunen lana.

"Urrats bat" egitasmoa duela bost urte jarri zen martxan eta, dagoeneko, 25 enpresa sortu dira. Lanbide Heziketako zentroek beren ikasleentzako enpresak sortzeko interes handia izan dute beti, eta egitasmo hau horren emaitza da.

## [ NOTIZIA ]

### Tentsioa sortu zen Plaza Handian merkatari, udaltzain eta ertzainen artean

**E**lgoibar Bizirik plataformakoek duela 8 hilabete bezala, azoka Plaza Handian jartzeko asmoa zuten atzo, baina udaltzainek eta ertzainek ez zieten utzi. Marivi Agirregomezkortak astelehen arratsaldeko prentsaurrekoan argi eta garbi azaldu zuen "azoka ez zela maiatzaren 12an Plaza Handian jarriko", eta halaxe izan zen. Azokako saltzaileak goizean goiz iritsi ziren Plazara, baina berehala konturatu ziren ez zela erraza izango bertan postuak jartzea, izan ere, Plaza itxita zegoen eta udaltzainak ez ezik, ertzainak ere zeuden bertan. Halere, hainbat merkatari eta Elgoibar Bizirik plataformako kideak Plaza erdira inguratu ziren eta beraien artikuloak zabaldu zituzten lurrean, salgai.



#### Tentsioa

Herritar ugari hurreratu zen plazara merkatariari babesa eskaintzera eta azokari itenbidea topatzeko eskatu zuten eta Marivirentzat dimisio oihuak entzun ziren. Tentsio une gogorak bizi izan ziren.

## [ ZENBAKIA ]

# 70

Elgoibarko 70 umek egin dute aurten beren lehenengo Jaunartzea. Bi txandatan banatuta egin ziren Jaunartzeak, lehenengoan 40 ume, eta bigarrenean 30. Esan digutenez, iaz 75 lagunek egin zuten, eta datorren urteari begira, 80 ume inguru espero dituzte.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Artekaleko eskailera mekanikoak martxan jarri dituzte aste honetan. Beharrezko aproba guztiak egin ostean, prest daude, eta dagoeneko jende dezente dabil eskailera hauetan gora. Dударik gabe, San Rokeko bizilagunei etxerako bidea erraztuko diete eskailera hauek. Udala lan handia egiten ari da herritarrei erraztasunak emateko. Urasandi auzoan hasi ziren, orain Artekaleren txanda izan da, eta aurrerantzean herriko beste zonalde batzuetan ere jarriko dituzte eskailera mekanikoak.

## Elgoibarko ikasleek hiri hondakinak aztertu zituzten Eskola Agenda 21ean



**E**lgoibarko ikasleek hirian sortzen diren hondakin solidoen inguruko tratamendu ezberdinen proposamenak eta iritziak adierazi zituzten Eskola Agenda 21 ekimenaren barruan ospatu zen Batzar Txikian. Pilar Ikastetxea, Elgoibar Ikastola, Herri Eskola eta Institutuko 60 ikaslek bete zuten Batzar Aretoa.

### Kezka nagusia birziklapena

Ikasleen kezka nagusia birziklapenen inguruan sortu zen, eta gai honen gainean, ekimen ezberdinak helarazi zizkieten udal arduradunei. Gai gehiago

ere landu zituzten, hala nola olio eta hondakin bereziak birziklatzeko aukera gehiago bideratzea herritarrei, eta txakurren jabeek beraien bete beharrak betetzea eskatu zituzten besteak-beste. Gai guzti hauen inguruan herriko bizilagunak sentsibilizatu daitezten, herritarrek informatzea bide egokizat jo zuten ikasleek.

Eskola Agenda 21 ekimenaren bitartez, ikasleek ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren nondik-norakoak aztertzeo aukera izaten dute, eta bide batez, garapen iraunkorrera bideraturiko proposamenak ere lantzen dituzte.

## 3.000 kilo olagarro saldu ziren Galiziarren Jaietan



Maiatzaren 6tik 8ra bitartean ospatu ziren Galiziarren jaiak Urasandi auzoan. Aurtengoan ixilik pasatu dira jaiak, ez baitituzte urteroko txapligo zaratatsuak bota. Hala ere, giro onean ospatu dituzte jaiak. "Super Fama" orkestrak alaitu zituen arratsalde eta gauak. Honekin batera, Galiziako doinuak entzun eta bertako jaki tipikoak dastatzeko aukera ere izan genuen. Guztira 3.000 kilo olagarro saldu ziren. Bertara gerturatu zirenek gustura jan zuten, nahiz eta gehienek garesti zegoela aipatu. Aurtengoan gainera, eguraldia ere lagun izan dute galiziarrek. Orain, datorren urtera arte itxaron behar!

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Udako Euskal Unibertsitatea

Elgoibarko Udalak Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntzak emango ditu. Ikastaroen matrikula osoa (egonaldirik ez) ordainduko die beka gisa ikasle eta langabetuei. Aurtengoan 33 ikastaro eskainiko dira Biarritzen, Eibarren eta Iruñean. Ikastaroei buruzko informazio gehiago [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean aurkitu daiteke.

Dirulaguntzak jasotzeko interesatuek 943 74 43 66 telefonora deitu dezakete goizez.

### Finantza eragiketak on-line

Miramón Enpresa Digitalak antolatuta, elgoibarko autonomo eta mikroenpresentzako "Finantza eragiketak on-line" izeneko ikastaroa eskainiko da IMHn, datorren maiatzaren 19an arratsaldeko 18:00etan.

Izena eman edo informazio gehiago nahi dutenek 902 252 595 telefono-zenbakira dei dezakete, edo [cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com) helbidera mezua bidali.

### Bidezko Merkataritza

Bihar, maiatzak 14, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta Parrokiako Misio Taldeak salmenta postu bat jarriko du King-Kong azpian goizeko 9:00etan hasita.

### Ekimen berrientzat on-line ikastaroa

Debegesak, Pymeeei zuzenduta, enpresa ideia berriak aurrera eramateko on-line ikastaroa jarri du martxan.

Debegesak teknologia berrien inguruan apustu egin nahi du. Oraingoan, ekimen berriak sustatu eta bideratzea du helburu. Interesatuek, informazio gehiago lor dezakete [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com) edo 943 82 01 10 telefonoan.

# Inkesta

Bihar, maiatzak 14, 3.000 musikari izango dira gure herrian Musikaldia dela-eta.

## Ba al daukazu Musikaldiako kontzertuetara azaltzeko asmorik?

**PAUL HERNANDEZ**

**Ikaslea**

15 urte



“Bai, ikusiko dut kontzerturen bat. Ez dut instrumenturik jotzen, baina musika gustuko dut. Larunbatean kalera aterako naiz, eta seguru ikusiko dudala kontzerturen bat.”

**ANTONIO MONTERO**

**Okina**

29 urte



“Kalera atera eta parean tokatzen bazait ikusiko dut kontzerturen bat, baina ez nekien bihar Musikaldia zegoenik. Momentuz ez daukat planik.”

**JOSEBE GOROSTIZA**

**Etxekoandrea**

41 urte



“Bai, semeak parte hartuko du eta kaliaz ibiliko geranez ikusiko dugu zerbait. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, egun polita izango dela uste dut.”

**SILVIA PARRAS**

**Ikaslea**

11 urte



“Bai, joango naiz giroa ikusitera. Gainera nire lagunek tronpeta jotzen dute eta kontzertuetan hartuko dute parte. Musika gustuko dut, eta giro ona egongo dela uste dut.”

## [ BAI ala EZ? ]

**Ba al duzu kultur eta kirol ekitaldietara joateko ohiturarik?**

**BAI %60**

“Bai. Hala ere, dagoan eskaintza zabalakin, laurdenetara ere ez naiz ailegatzen. Kultur ekitaldietara gehienetan berdinak joaten dira. Publiko leiala da. Kirolaren kasuan, kirolaren arabera.”

**EZ %40**

“Bueno, gustukoak diran jarduera batzuetara joaten gera, baina, orokorrean, ez naiz azaltzen herrian antolatzen diren kirol eta kultur jardueretara.”

Datorren asterako.... **Hasi dira, dagoeneko, udarari begira bidaiak iragartzen.**

**Hasi al zara prestatzen udako oporrak?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7744** zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!



## AINHOA LODOSO

ETBko GIZARTE ARLOKO PROGRAMEN ARDURADUNA

# «Zaborra ematen badiozu, ikusleak katez aldatuko du»

*Elgoibarren jaioa duela 35 urte, Barren astekarian hasi zen kazetari lanean Ainhoa Lodoso. Zazpi urte egin zituen heri prentsan eta azken bost urteak ETBn eman ditu. Besteak beste, Ikusgela, Zine Oro eta La mirada mágica-Euskal Herria Lau Haizetara saioetan ibili da lanean, erredaktore eta gidoigile gisa. Gaur egun, ETBko gizarte arloko programen gestioaz arduratzen da.*

### 🦋 ETBko Gizarte Arloko Programen arduraduna zara. Zein da, zehazki zure lana?

ETBn programak arloka daude banatuta, motaren arabera, eta nirea gizarte gaietako saioen arloa da. Hortaz, arlo horretako programen gestioaz arduratzen naiz, saioa martxan jarri eta segimendua egin behar dut. Une honetan Pásalo, Esta es mi gente edo Bertatik Bertara saioen arduraduna naiz, besteak beste. Eta ekainean nire esku egongo den beste saio berri bat hasiko da: EITB kultura. Ilusio handia egiten dit programa honek, eta ETB1 eta ETB2n egongo da, bietan.

### 🦋 ETBn ere eragin handia al du audientziak?

Bai, jakina. Telebista kate guztiak audientziari begira bizi dira, baina audientziaz aparte, katearen irudi kualitatiboa osatzen laguntzen duten barietateak ere funtsezkoak dira. Horregatik, badira audientziarik ematen ez duten programak, baina kate batentzat oso garrantzitsuak direnak irudi kualitatiboa sortzen dutelako.

### 🦋 Audientziaren aitzakian, dena libre al da?

Ez, inon ez da dena libre. Audientzia garrantzitsua da, oso garrantzitsua,

audientziaren bitartez neurtzen baita -objektiboki- kate baten arrakasta. Eta egia da zenbait reality-k audientzia handiak eman dituztela, Tele5-ko 'Gran Hermano' ren eta 'La Casa' ren saga luzeak kasu. La Casa, bai arratsaldeetan bai ostegun gauetan, audientzia liderra da Estatuan, eta Euskadin, Vaya Semanitak

«Ikusleak 220 minutu pasatzen ditu egunean telebistari begira»

bakarrik irabazten dio. Hortaz, argi dago ikuslegoak gogoko dituela reality-ak, baina reality-ak ez diren programak ere bai. Jendeari ondo egindako gauzak gustatzen zaizkio, eta listo. Niretzat, telezaborraren esanahia telebista txarra egitea da, eta reality guztiak ez dira txarrak, orain hain modan dauden fikziozko telesail guztiak onak ez diren bezala.

### 🦋 Telezaborraren garaian, nola defendatuko zenuke telebista?

Nire ustez, telebistak ez du inongo defentsa beharrik. EAEn, ikusle batek batez beste 220 minutu pasatzen ditu egunero telebistari begira. Denbora asko da hori, eta jendeak nahi duena ikusten du. Kate ugari daude, eta kanal tematiko asko. Ikusleak ez dira tentelak, eta zaborra ematen diozula uste badu, katea aldatuko du eta listo.

### 🦋 Ze saio ikusi nahi zenuke ETBn?

Gainontzeko kateek imitatu nahiko litzuket saioak. Horrek esan nahiko luke ETB aurretik doan katea dela, konpetitiboa, modernoa, berritzailea. Hau da, Vaya Semanitarekin gertatu den fenomeno behin eta berriz lortzea.

### 🦋 Barrenek izan zuen estreinako zuzendaria izan zinen. 13 urte pasa dira. Nola ikusten duzu gaur egun?

Galdera zaila. Asentatuta dagoen zalantzarik ez dago. Baina orain, iruditzen zait gauza berriak, kalitatezkoak eta interesgarriak eskaintzeko zailtasuna duela. Gaur egun, edozein negozioren erronka kalitatezko produktu bat egitea da, eta horretarako etengabe berritzeko gaitasuna eduki behar da. Eta hori ez da batere erraza.



## IRAKASLEARI azterketa

Hezkuntza Bereziko irakaslea

EIDER UGARTEMENDIA



**1 Ikasle fina ala azken momentuan ikastekoa zinen?**

Nahiko fina, baina Magisteritzan erraz aprobaten nuenez, uzten nituen gauza batzuk azken momenturako.

**2 Piper asko egiten al zenituen?**

Ez, orokorrean formala izan naiz.

**3 Azterketetan harrapatu al zaituzte sekula kopiatzen?**

Behin txibatzen harrapatu ninduten eta azterketa puskatu zidaten. Beste aukera bat eman ziguten eta ez nuen etxean ezer esan.

**4 Eta zuk ikasleren bat harrapatuz gero, zer egingo zenuke?**

laz harrapatu nuen bat, oso erraza da. Zuzenean suspenditu nion, baina gero beste aukera bat eman nion, eta berriz suspenditu zuen.

**5 Zein da sekula ahaztuko ez duzun zigorra?**

Txibatzen harrapatu ninduteneko hura. Niretzako trauma bat izan zen.

**6 Erraza al da ikasleak zigortzea?**

Ez, botere hori daukazu, baina azkenean pena ematen du.

**7 Etxeko lanak egiten ez dituztenean zein aitzakia jartzen dute?**

"Ahaztu egin zait" edo "eginda daukat baina ez dut aurkitzen..."

**8 Irakasle ez bazina?**

Antzezlea edo dantzaria izatea gustatuko litzaidake, artista.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



J. ALBERTO GARCIA *aita*

1. Gorroto dut, ez zait batere gustatzen.

2. Moto eta auto karrerak gustatzen zaizkit

3. Atzerrira, munduari buelta ematea.

4. Derrigorrez jaiki egin behar!

5. Azelgak eta alkatxofak.

6. Bidaia handi bat egingo nuke.

7. Liburu bat joan zen astean.

8. "Los Increibles" umeekin.



EIDER GARCIA *alaba*

1. Gorroto dut, ez zait gustatzen.

2. Shin Chan.

3. Mallorca, hondartza eta eguzkia.

4. Asko kostatzen zait jaikitzea.

5. Baba gorriak.

6. Etxe bat erosiko nuke.

7. Bere egunean eratzun bat.

8. "Bob esponja", asko gustatu zitzaidan.

## GALDERAK

1. Futbola gustuko ala gorroto duzu?

2. Telebistako saio gustukuena?

3. Oporretan joateko leku bat?

4. Iratzargailuak jotzen duenean...

5. Gorroto duzun janari bat?

6. 20 urte bazenitu?

7. Aitari/alabari egindako azken oparia?

8. Azkena ikusi duzun filmea?

## TXIKI inkesta

Joaten al zara mezetara?  
Zergatik?

**Patricia Rescalvo**  
10 urte

Bai, kristaua eta batzue-  
tan monagilla naizelako,  
eta Jesusengan sinistu eta  
konfidantza dudalako.



**Zuriñe Conde**  
9 urte

Bai, Jesusekin egoteko,  
errezatzeko, gauza txarrik  
ez pasatzeko eta  
monagilla naizelako.



**Sara de Castro**  
10 urte

Bai, Katekesira joaten  
naizelako eta Jesus asko  
maite dudalako.



**Unai Ortuoste**  
10 urte

Bai, errezatzeko, Jesusi  
otoitz egiteko, ondo  
pasatzeko eta Jesusen  
gorputza jateko.



## LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan  
edo aldatuta?



Erantzuna: .....

Izen abizenak: .....

Telefonoa: .....

**SARIA**

Elhuyar-ek eskainitako

"GIPUZKOA ZURE ESKU"

mahai jokoa + CD-ROMa



**AURREKOA:**



Irabazlea: **Saray Rodríguez**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo  
posta elektronikoz bidali:

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



# GAZTIA NAIZ

## 10tsaGA BE

Joseba Juaristi 18 urte

**18 urte betetzean zertan aldatu da zure bizitza?**  
Askatasun gehiago daukat, baina ez da asko aldatu.

**Nori kontatzen dizkiozu zure sekretuak?**  
Laguneri edo gurasoeri, baina ez naiz gauzak kontatzekoa.

**Maitemindu al zara inoiz?**  
Bai, eta orain ere maiteminduta nago.

**Gogoan al daukazu zure lehenengo musua?**  
Ez, oraindik ez diot inori eman.

**Musuak eman ala hartu?**  
Bi gauzak ditut gustuko.

**Jeloskorra al zara?**  
Bai, dezente gainera!

**Nola ikusten duzu edalontzaia erdi beteta ala erdi hutsik?**  
Errealista naiz eta egoeraren arabera ikusten dut edalontzia.

**Selektibitateak ematen al dizu beldurrik?**  
Ez, kurtsoa aprobataz ematen dit beldur gehiago.

**Zer egingo duzu Batxilergoa bukatutakoan?**  
Kimika ikasiko dut.

**Nora joango zinateke oportetan?**  
Martxa dagoen edozein tokitara.

**Aberatsa bazina zer egingo zenuke?**  
Etxea eta kotxea erosi, bidaiatu... luxuz beteta bizi.

**Nork irabaziko du futbol liga?**  
Ez dakit eta ez zait inporta. Futbola ez dut gustuko.

**Emozionatu al zinen Letizia haurdunaldiarekin?**  
Egia esanda, ez.

**Politika ala mundu arrosa duzu nahiago?**  
Mundu arrosa, politika ez zait interesatzen.

**Lotan ala esna izaten dituzu amets hobeagoak?**  
Esna, lotan ametsgaiztoak izaten ditut gehiago.

**Zein famatu azaltzen da zure ametsetan?**  
Natalia Verbeke gustatzen zait asko.



# BARREN

## jakiteko...

### EZAGUTU INTERRAIL

InterRaila Europatik barna bidaiatzeko modu desberdina eskaintzen duen tren txartela da. Zuk aukeratutako inguruan ia tren guztiak erabili ahal izango dituzu. Herrialdez-herrialde zeure kasa ibili zaitezke horrela.

Iraupen ezberdineko txartelak daude. Batzuk 12 eguneko iraupena dute, beste batzuk 22koa eta 30 egunekoak ere badira. Zure beharretara ongien egokitzen dena aukeratu besterik ez duzu. Txartela urteko edozein garaitan erabili dezakezu Europa osoan.

Zonalde ezberdinak daude, eta zuri gehien interesatzen zaizuna, edota gehien interesatzen zaizkizunak aukeratu ditzakezu. Zure herrialdea duen zonaldea ere aukeratu dezakezu, baina ez ahaztu, txartela ezingo duzula zure herrialdeko trenetan erabili. InterRailen helburua Europa ezagutzea delako, eta ez norberaren herrialdea.

Gerturatu zaitez Renfe konpainiaren edozein txarteldegira, edota bidaiaria-agentzia batera eta erosi txartela. Informazio gehiago: <http://www.inter-rail.org> helbidean.

### GAZTETXEAN ETA KALEAN



"Gaztetxean eta kalean" lemapean, giro bikaina izan zen joan zen zapatuan Madala inguruan. Gazte Asanbladak antolatuta, trikipoteoarekin hasi zuten eguna. Ondoren, Gaztetxe zaharrak egondako lekuetan oroigarriak jarri zituzten, eta etorkizuneko Gaztetxeari bisita egin zioten. Eguerdian bazkari herrikoa izan zen Madalan, eta esan digutenez, babarrunak oso goxoak zuden. Egunari amaiera emateko kontzertuak izan ziren Madalan. Jende dezente hurbildu zen ekitaldi hauetara, eta oso giro onean pasatu zuten eguna.

### FORU ALDUNDIAREN BEKAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak musika, dantza, antzerkia, arte bisualak, literatur sorkuntza, kultur kudeaketa, zaharberrikuntza eta ikerketa historikorako hainbat beka banatuko ditu. Deialdia egin da, jada, eta informazioa jaso nahi duenak [www.gipuzkoakultura.net](http://www.gipuzkoakultura.net) web gunean begiratu besterik ez dauka. Beka jaso ahal izateko, besteak beste, eskaera egiten duenak proiektua aurkeztu behar du zeri buruz, non eta zein epetan gauzatuko duen aipatuz.



**gazte**  
informazioa  
Kultur etxean. Bigarren solairuan  
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

**Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!**

**JOSU MUJIKA** DANTZARIA

## «Dantzaren titiriteroa izan nahi nuke, maleta batekin herriz herri»



*la mundu osoko txokoak ezagutu ditu dantzari esker. Aktore lanetan ere ikusi izan dugu Goenkalen. Azken urteotan, berri, irakaskuntzan ari da Josu Mujika elgoibartara. Gaur egun, 250 neska-mutilei irakasten die dantzan eta, horrez gain, Euskadiko Dantza Elkarteko presidentea ere bada.*

### 👤 250 ikasle. Asko, ezta?

Bai. Orain dela 6 urte 20 ikaslerekin hasi nintzen eta orain 250 gara. Eibar, Elgoibar, Mendara eta Deban ematen ditut klaseak. Lehenengo urteetan denbora, espazioa, jolasak eta abar. Gero teknika klasikoarekin hasten naiz. Nagusiagoei jazz dantza irakasten diet.

### 👤 Nesken artea izaten jarraitzen al du?

Dudarik gabe. Askoz mutil gutxiago daude. Aurreiritzi asko dago. Izan ditut oso mutil ikasle onak, baina gero eskolan adar-joka hasten zaizkie eta laga egiten dute. Harritzekoa da, ze Euskal Dantzetan beti egon dira mutilak.

### 👤 Izan daiteke Euskal Dantzak ez direla hain "femeninoak".

Bai, argi dago. Euskal dantzetan ez dago kontaktu hori, nesken dantzak daude batetik eta mutilenak bestetik, mugimenduak berrizagoak dira...

### 👤 Leticia Garcia mexikarrak BARRENen esan zuen euskaldunok ez dugula dantzarik egiten.

Lotsatu egiten gara. Ni kanpotik Elgoibarrera etorri eta tabernetan dantzan hasten nintzen, deshinibituta. Bat batean desmadratzen ari nintzela konturatzen nintzen. Ez dago ohiturarik jendea horrela ikusteko dantzatzen. Ridikuloaren beldurra daukagu.

### 👤 Herri baten kasuan: nolako dantza halako izaera?

Bai. Dantza gauza kulturala da eta jendearen izaeraren arabera sortzen da.

Euskaldunoi beti esan izan zaigu hotzak garela eta gure dantzak ere halakoxeak dira. Afrikan edo Hego Ameriketara, oster, askoz gehiago mugitzen dira. Klimak ere badu eraginik, noski.

### 👤 Txikitan garbi al zenuen dantza izan nahi zenuela?

Beti gustatu izan zait, eszenatokia, argiak... Cantiflasek pelikula batean ikusi nuen neska bat twist bat egiten eta ikaragarri gustatu zitzaidan. Behin, Donostian izan nintzen gorputz adierazpenaren inguruko ikastaro bat egiten eta irakasleak animatu ninduen dantza ikastera. Bartzelonako Antzerki Institutuan hasi nintzen 20 urterekin. Dantzarako oso berandu baina, halere, dantza izan da eta da nire lanbidea.

### 👤 Euskadiko Dantza Elkarteko presidentea ere bazara.

Bai, helburua da dantzari bere lekua ematea, jendearengana iristea eta profesionalentzat gauzak antolatzea. Egiten dugun ezagunena beharbada Donostiako Kontxan egiten den barandillarena da. Komunikabideetan ateratzea oso inportantea da, jendeak ezagutu egiten du zure lana, agintariak ere babesten dute dantza...

### 👤 Noizko berri taula gainean?

Ba ez dakit. Nire ametsa izango zen nire ikuskizuna herri herri eraman ahal izatea baina maleta soil bat eramanda. Dantzaren titiriteroa izan nahi nuke. Zenbat eta xumeago, are eta aberatsagoak dira ikuskizunak.

«Zenbat eta xumeago, are eta aberatsagoak dira ikuskizunak»

## 7. MUSIKALDIA

### 3.000 ikaslek musikaz jantziko dute Elgoibar

**10** agertoki, 3.108 ikasle, 150 talde, 46 Musika Eskola, zuzeneko 50 musika ordu, 483 musika-lan, 6.000 ikusle, 140 bolondres... Maiatzaren 14an, zapatu honetan, Elgoibarren ospatuko den 7. Musikaldiari dagozkion zifra batzuk besterik ez dira. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatzen duen kultura eta jai giroko ekitaldi honek agertoki erraldoi bihurtuko ditu Elgoibarko kaleak.

Goizeko 10:15ean izango da ongi-otorri ekitaldia Plaza Handian. Musikaldiaren aurkezpena Susana Mujikak egingo du, ohorezko aureskua dantzatuko da eta Musikaldia 2005eko abestia entzuteko aukera izango da. Ondoren, 10:30etik 14:30era bitartean horretarako prestatutako 9 eszenatokitan hainbat Musika Eskoletako taldeen aktuazioak izango dira. Arratsaldean kontzertuen txanda izango da eta amaierako kontzertua Olaizaga kiroldegian izango da 18:15ean. Kiroldegia mugatua denez, Gozategi anaien kontzertua izango da aldi berean Plaza Handian.

Herri barrua Madalatik Santa Anara trafikoa itxita egongo da.



#### AGERTOKIAK

- Plaza Handia Bandak.
- Usuako Plaza:
- Ganbera-musika, abesbatza txikiak.
- San Bartolome parrokia: Abesbatzak.
- Musika Eskola:
- Ganbera-musika pianoarekin.
- Plaza Txikia:
- Dantza, talde instrumentalak, dixiland, big band.
- Nafarroa Plaza
- Txistulariak, trikitilariak, alboka, txalaparta, metalezko haizezkoak.
- Madalako parkea
- Jazz, rock, pop, folk.
- Herriko Antzokia
- Dantza klasikoa, orkestrak, soka.
- Sigma
- Perkusioa, fanfarreak, soinuak...

### "Mengele Quartet" taldearen kontzertua sotoan

Sotoko Hotsak programaren barruan "Mengele Quartet" taldeak kontzertua eskainiko du gaur, barixakua, Kultur Etxeko sotoan. Bera eta Elgoibar bitartean sortutako laukotea; "Gutariko bat", "Onddo" edo "Café Teatro" taldeetako kideek osatzen dute. Inprobisazio askea bilatzen du Mengelek, "behin behineko sorkuntza, bide zuzenak baino bidezihorrek bilatzea, ustelduko diren piezak eraiki ordez, momentuan desagertzen diren uneen defendatzaile sutuak izatea. Mengelek ez du jazz egiten, elektronika ere ez, ez pop edo post daraman ezer. Norabideak finkaezinak dira, popak eta rockak post aurizkia daraman bitartean eta Folklore folklorizatzen jarraitzen duen garai



hauetan inprobisazio askeak lotzen gaitu, horrek sortzen duen paradoxa argi edukirik, inor ez da bere askatasunaren jabe". Saioa 22:30ean hasiko da.

### Lau filmeko zikloa eskainiko du Ongarri Zine Klubak

Udako etenaldiaren aurretik, "1999-2005" zikloa antolatu du Ongarri Zine Klubak ikusleei urte hauetan zehar egindako emanaldien berri emateko. Guzтира 173 pelikula izan dira eta 15.000 ikusleak, Ongarritik adierazi digutenez. "Bestelako zinearen 173 filme. Ezaugarri desberdin ugari dituzten pelikulak gerturatu ditugu Herriko Antzokira eta beraiekin batera ezagutu dugu beste era bateko zinema, zine komertzialak jasotzen ez dituen gaiak, beste geografia batzuk, ekialdeko zinea, Hego Amerikakoa, zinearen munduan hasiberriak diren lehenengo lanak, beste errealitate eta ikuspuntuetatik egindakoa zinea, orohar. Urte hauetan aipatutako emanaldiak egiteko Kultura sailaren laguntza eskertzen dugu eta nola ez eskerrik onenak fideltasuna gordetzen duten ikusleei. Era berean elkarlanean aritutako giza talde eta kultur taldeei ere eskerrak luzatzen dizkiegu". Gauzak horrela, 1999-2005 zikloak emanaldi hauek izango ditu:

Maiatzak 19

"Old Boy"

Maiatzak 24 eta 26

"Las tortugas tambien vuelan"

Maiatzak 25 eta 27

"El secreto de Vera Drake"

Ekainak 2


"American Splendor"



Hurrengo pelikulak irailean emango dituzte Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren inguruan.

## GORKA ZABALA SPINNING IRAKASLEA

### «Spinning klase bat da saunaren ostean izerdi gehien botatzen den lekua»



*Johnny Goldberg maratoilari estatubatuarrek sortu zuen spinning-a 1980an entrenamendu sistema gisa. Harrezkero munduko aktibitate fisikorik praktikatuenetakoa izatera iritsi da Gorka Zabala (35 urte) ikasle gisa hasi zen eta urte eta erdi darama spinning irakasle gisa Mintxetan.*

#### 👤 **Nolako ikasleak dituzu?**

Moeta guztietakoak, 18 urteko gazteak eto 60 urtekoak barne. Arrakastaren arrazoietakoa bat bere sinpletasuna dela uste dut. Ez dago koreografia eta antzerakorik ikasi beharrik. Laupabost mugimendu dira. Bizikleta gainean eseri eta musikaren erritmora pedalei ematea besterik ez da.

#### 👤 **Zer bilatzen du jendeak?**

Kirol pixka bat egin eta ongi pasatzera etortzen da %90-a. Kalean askotan entzuten da oso gogorra dela, eta jendea beldurtu egiten da, baina ez dauka zertan. Norberak dauka ariketaren intentsitatea eta gogortasuna moldatzeko aukera. Jendeari probatzera etortzeko esan nahi nioke.

#### 👤 **Zein dira Spinning-aren onurak esanguratsuenak?**

Pertsonalki gehiago nabari ditut onura psikikoak fisikoak baino. Atetik sartu orduko deskonektatzen dut eta ordubetez musikaren erritmoan kirola eginez jendearekin sortzen diren harremanek asko betetzen naute. Fisikoki zangoak lantzen dira gehienbat, baina baita gorputz ia guztiko muskulazioaren tonifikazioa ere. Eta, ariketa errazen bidez erresistentzia hartzen da.

#### 👤 **Zenbat kaloria erre daitezke spinning klase batean?**

Zaila da zenbatzea, norberaren esfortzua araberakoa baita, baina

600-900 bitartean egon daiteke. Leku itxian jende asko pilotzearen ondorioz izugarri izerditzen da. Sauna baten ostean izerdi gehien botatzen den lekua dela uste dut. Toalla eta ur botelina derrigorrezkoak dira. Nik orduero ur litro bat edaten dut. Izerditzeak, asko motibatzen du jendea.

#### 👤 **Musika garrantzitsua da, ezta?**

Bai, oso. Guztiz motibagarria da eta bizitasuna eta alaitasuna ematen dio ariketari. Era guztietako musikek balio dute, baina irakasle bakoitzak bere gustuak ditu, klaro!

#### 👤 **Nolakoa izan behar du spinning irakasle on batek?**

Lehenik eta behin kondizio fisiko onetan egon behar du, eta bestalde, jendearekin inplikatzeko jakin behar du. Ikaslea nintzenez asko motibatzen ninduen irakasleak nirekin batera sufritzen zuela ikusteak. Jendeari alaitasuna komunikatzeko ere jakin behar da. Agian ez da hitzik egokiena, baina 'showman'-etik ere pixka bat eduki behar da.

#### 👤 **Uda inguratu ahala jende gehiago joaten al da klasera?**

Bikini operazioan murgilduta gaude. Existitzen da, ez da mito bat. Udaberriaren jende asko etortzen da. Batzuk konstanteak dira eta urte guztian etortzen dira, baina beste batzuk bolaren arabera funtzionatzen dute.

«600-900 kaloria erre daitezke ordubeteko saioan»

## ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

# 150 lagunetik gora aterako dira domeka honetan

**D**omeka honetan, maiatzaren 15ean ospatuko da Elgoibarko Mendi Itzulia. Goizaldeko 06:00etan irtingo dira mendizaleak Plaza Handitik eta gure herria inguratzen duten gailurrik garrantzitsuenak gainditu ostean 38 kilometroko mendi ibilaldia osatuko dute. Dagoeneko 150 lagunek eman dute izena. halere, egunean bertan ere eman daiteke izena, Morkaiko Mendizale Elkartearen egoitzan. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta 12 euro bazkide ez direnek. Amaieran bazkaria izango da parte hartzaile guztientzat Merkatu Plazako azken solairuan.

### Bizikletaz egiteko aukera

Sortu berri den Elgoibarko Mendi Bizikleta Taldeak Elgoibarko Mendi Itzulia bizikletaz egiteko aukera ere eskainiko du aurten. Ibilbidea antzerakoa izango da:



Elgoibar, Beraseta, Karakate, Irukurutzeta, Azkarate, Urnabitza, Mendaro, Arnoate, San Migel, Hiruiturri, Kalamua, Moru eta Elgoibar. Goizeko 8:00etan aterako dira, eguraldiak laguntzen badu, Plaza Handitik eta 50 kilometro inguruko ibilbidea 5 ordu eta erdian egitea espero dute. Bakoitzak bere janaria eraman beharko du.

## Abel Hernandez txapelkun Bergarako Tenis Txapelketan



Abel Hernandez elgoibartarrak Bergarako Tenis Txapelketa irabazi zuen joan zen aste bukaeran. Hiru set behar izan zituen Javier Olaso aurkaria gainditzeko: 7-5/5-7/6-2 irabazi zuen norgehiagoka. Sari bezala teniserako jantziak eta kirol jantzi denda batean gastatzeko txeke bat eman zioten. Abelek bost edo sei urte inguru daramatza tenis txapelketetan parte hartzen. Herri mailako txapelketetan aritzen da eta Mutrikuko eta Azkoitiko txapelketak irabazi izan ditu, besteak beste.

## Nora Santiago txapelkunorde Gipuzkoako Atletismo Txapelketan

Gipuzkoako Atletismo Txapelketa ospatu zen joan zen zapatuan Mintxetan. Mintxeta Atletismo Taldeko zazpi kidek parte hartu zuten txapelketan eta honako emaitzak lortu zituzten. Nora Santiagok bigarren postua eskuratu zuen alebin mailako 500 metrotako lasterketan. Nerea Azpiazu 15. postuan sailkatu zen lasterketa

berean. Mutilei dagokionez 11. eta 13. postuetan sailkatu ziren Aitor Etxeberria eta Unai Amilleta, hurrenez hurren. Infantil mailako 3.000 metroko lasterketan Angel Mari Lopez izan zen heritarik bizkorrena, bostgarren postuan zailkatu zelarik. Borja Diez eta Mikel Lopezosa 10. eta 12. postuetan helmugaratu ziren.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Berio 1 - Haundi 2 (3. maila)  
Zarauz 1 - Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 2 - Billabona 0 (Kad.)  
Elgoibar 3 - Lengokoak 4 (Inf. B)  
Gasteiz 4 - Elgoibar 1 (Neskek)  
Almen 3 - Elgoibar 3 (Neskek F-8)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 1 - Altamira 4 (Nazional B)  
Lanbroa 2 - Eraso 3 (1. maila)

### ESKUBALDIA

Urnabitza Sanlo 12 - Arrate 32 (Kad. mut.)  
Pagoaga Sanlo 14 - Jauja 10 (Kad. neska)  
Bergara 13 - Cometel Sanlo 32 (Jub. neska)  
Tecnomeca Sanlo 18 - Zarautz 30 (Kad. mut.)  
Urola 22 - Pneumax Sanlo 22 (Jub. mut.)  
Aloña 20 - Sanlo 24 (Sen. neska)  
Leizaran 29 - ANIT Softlan Sanlo 20 (Sen. mut.)  
Tecnifuelle 27 - Egia 23 (Sen. mut.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 14  
16:30 Haundi - Basconia (3. maila)  
18:30 Elgoibar - A. Ondarroa (1. erreg.)

### ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 14  
16:15 Kenci Elg. - Allerru (Nazional B)  
Domekia, 8  
12:30 Lanbroa - Eraso (1. maila)

# Merkatua

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- † 19 urteko neska asteburuetan tabernan edo jatetxean lan egiteko prest. **943 53 11 15**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarteak, portalak, tabernak, etxeak... **695 708 028/943 531868**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarteak, portalak, tabernak, etxeak... **646 235 195**
- † Mendaroko emakumea jantzi konponketak egin edo etxe lanetarako prest. **943 03 36 05**
- † Emakumea garbiketa lanetarako prest: elkarteak, portalak, tabernak... **699 609 190**
- † Emakumea ospitalean gaixoak zainzteko prest, gauze edo goizez. **943 17 28 96 (Mertxe)**
- † Mutila enkofratzaile edo 2. mailako igeltsero moduan lan egiteko prest. **943 17 28 96 (Jesus)**
- † Mutila garbiketa, peoi, igeltseritza, obra edo pinturan lan egiteko prest. **638 716 987 (Anjel)**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarteak, portalak, tabernak... **686 578 228**
- † Emakumea (hemengoa) ospitalean gaixoak zainzteko prest. Orodka, eta gauze. Esperientzia daukat. **943 53 17 45 (gauze)**
- † Mutila nagusiak zaindu, txofer, edo igeltseritza lanetarako prest. **670 25 78 04**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarteak, portalak, tabernak... **639 88 20 04**
- † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. **665 755 211**

### ESKAITZA

- † Euskal Bizikleta txirindulari probarako azafatak behar dira. Ekaineko hasieran, kotxea ezinbestekoa. Ordaindua. **607 71 38 37 (Antonio)**
- † Pertsona euskalduna behar da aste-lehenetik igandera barran lan egiteko. **670 65 49 21**
- † Kamareroa behar da. **649 96 38 92**
- † Sukaldari laguntzailea behar da. **943 74 10 12**
- † Iturgina behar da Elgoibarren. **650 586 144**
- † Debako Kresala hotel-jatetxeak jendea behar du departamentu guztietarako. Interesatuak curriculuma eraman pertsonalki. **Markiegi kalea 6, Deba.**
- † Kamareroa behar da. **943 74 10 12**
- † Jatetxerako sukaldari laguntzailea behar da. **943 12 12 62**

## [ SALEROSKETAK ]

- † Bikientzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. (aulkia, grupo 0, zakuak, burbuilak...) **636 12 95 43**
- † Andregai soinekoa eta konplementoak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. **943 08 00 81/615726430**
- † Konika argazki kamera digitala salgai. 2.1mp. Gutxi erabilia. 100 euro. **661426077 (19:00etatik aurrera)**
- † Logelarako altzariak salgai. 90zm-ko bi ohe eta amairua. Prezio ona. **676 61 70 55/659 79 06 72**
- † Elikagai denda salgai jubilazioagatik. Arregitore 8, behea. **943 74 30 91**
- † Haur sehaska salgai. Oso polita. **943 74 16 19**
- † Bigarren eskuko motorra erosiko nuke. **661 22 51 49**
- † 90zm.ko somiera salgai. Berrira, lami-naduna. 50 euro. **943 53 17 45**
- † Hyundai Coupe autoa salgai. SS-3755-AX. 130.000km. Egoera oso onean. **943 74 24 26**
- † Haur aulkia salgai, 3 gupilduna. Poltsa, zaku eta auritakoarekin. Maxi-Coxi sapeedy-sx. 2004. urtekoa. 325 euro. **616 69 02 68 (Leire)**

## [ LOKALAK ]

- † Gazte talde batek lokala hartuko luke alokairuan. **627 10 49 15**

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- † Etxea salgai San Roken. Sukaldea, 3 logela, egongela, 2 komun, trasteroa, 2 balkoi eta ganbarra. Garajea aukeran. **943 74 88 53**
- † Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena berritua. **943 74 18 83 (Ignacio)**
- † Etxea salgai Basarten. 75m<sup>2</sup> Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. **652 70 99 15**
- † Etxea salgai Ubitarten. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Altzari eta ganbararekin. Berritua. **652716724**
- † Etxea salgai Mendaron. 77m<sup>2</sup> Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora. **659 71 57 22**
- † Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. **677 780 680**
- † Etxe berria salgai Soraluzen. Komuna eta sukaldea amueblatua. Garajea, entreplanta, txokoa. **615 77 99 20**
- † Baseria salgai Bergaran. 30.000 m<sup>2</sup> 2 solairu. 465.785 euro. **615780842**
- † Etxea salgai Errosario kalean. Berogailu zentrala, sukaldea, 3 logela, egongela, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko prest. **943 74 02 68**
- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup> Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia garajea. **687 23 58 39**

### ALOKAIRUA

- † Etxea dut Jakan igerileku eta kirol guneduna. Astebete trukatu nuke abuztuaren mediterraneoan etxea duen norbaitekin. **6657460 62 (Maite)**
- † Etxea alokatzen da Jausoro Plazan. 2 logela, komuna, egongela, sukaldea balkoiarekin. **943 74 23 22**
- † Pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. **610 45 85 52**
- † Benidorm-en apartamentua alokatzen da. **943 74 06 28 (gauze)**
- † Etxea alokatzen da Zarautzen. Uda, asteburuak, zubiak... Hondartzatik gertu. **685 71 84 54**
- † Pisua alokatzen dut Benidorm-en. Hamabostaldi eta hilabeteak. Leku ona, hondartzara begira. **625 70 80 42**
- † Etxea alokatzen dut Alcoceberren. Ekaina, uztaila eta irailetik aurrera. Igerilekua eta hondartzatik 200 metrora. **680 18 39 07**

- † Pisua hartuko nuke alokairuan edo konpartituko nuke. **605 74 69 09**
- † Logela behar dut. Lo egin eta eropak garbitzeko. **943 74 42 92 (Felipe)**
- † Logela hartuko nuke alokairuan. **615 00 83 46**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar eta Mendara artean. **616 37 03 23**
- † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Igerilekua eta autoa aparkatzeko tokia. **653 73 34 57**
- † Donostia erdialdean pisu berria alokatzen da udan. **653 73 34 57**
- † Peniscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... **964 49 10 22**
- † Peniscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itasora eta mendira begira. **964 49 10 22**
- † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz), Bateles hondartzan ondoan. Jantzita. Maiatza, iraila, urria eta hurrengoak. **680 44 26 68**
- † Apartamentua alokatzen dut Saloun, Novelty eraikuntzan. Jantzita, aire egokitu, igerilekua, garajea, terraza. **943 81 42 38**

## [ GARAJEAK ]

- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. **943 74 27 78**
- † Aita Agirre Plazan garaje itxia alokatzen da. 90 euro. **660 795 301**
- † Garajea alokatzen da J. Mugerza behean. Maraduna. **943 74 32 88**
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m<sup>2</sup>. **646 50 28 66 (arratsaldez)**

## [ BESTERIK ]

- † Urte eta erdiko Setter ingeles emea oparitzen dut. **650 22 33 28 (18:00etatik aurrera)**
- † Eguzkitakoak galduta ditut Mendaron. Emakumezkoak, granateak, graduatuak. **657 722 836 (Leire)**
- † Gozotegi-kafetegia traspasatzen da Elgoibarren. **943 74 28 75**
- † Taberna alokatzen da. Sukaldea eta jangela ditu. **637 43 82 45 943 74 03 92 (goizez)**
- † Urasandiko harategi ondoan perikito hori eta berdeak ihes egin zuen apirilaren 26an. Aurkitzen duenak deitu mesedez. **943 74 08 63**



**MEKANOSA**

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**TERAPIA FAMILIARRA**  
(bikote eta banakako terapia)  
**PSIKOLOGIA**

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo ikasleekin
- UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- ELIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA

HIRIAN NAJILA 675 61 78 55 AURKIDU ERDIALDEAN  
ALBACA BASERKI 615 70 57 25 USTELA KALEA 11.

## [ZORIONAK]



† Zo-zo-zorionak **Pemini!** urte bat zaharragoa... trankil melon! Jarraitu irribarre horrekin gure egun tristeak alaitzen. RTSko gautxorren eta Daisyren partez.



† Zorionak **Izaro** maiatzaren 9an urte bat egin zenuelako. Gurasoen eta senideen partez.



† Zorionak **Unax** maiatzaren 12an zure lehenengo urtebetetze eguna izan zelako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Niko Osoro** 71 urterekin Donostiatik Itziarrera erromesaldia egin duzulako. 45km. 10 ordu-tan! Sasoi onean zaude, eta jarraitu horrela.




† Zorionak **Miriam** gaur, hilak 13, lau urte egin dituzulako. Ahizpa Elena eta familiako guztien partez.



† Zorionak **Intza** hilaren 15ean urtebete egingo duzulako. Familiakoen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Naia** hilaren 9an 13 urte polit egin zenuelako. Zure egunean bezain zoriontsu izan zaitezela beti. Senideen partez.



† Zorionak **Iraitzi** gure etxeko txikiarentzako bere lehenengo urtebetetzean muxu handi bat. Amaia, losu eta familiakoen partez.



† Zorionak **Angeli** Zelako mutil handia, dagoeneko 6 urte! Muxu handi bat familiakoen partez.



† Zorionak **Unax** igandean, maiatzak 15, urte bat beteko duzulako. Muxu potolo bat lker eta familiakoen partez.



† Zorionak **Julen** astelehenean urte bat beteko duzulako. Muxu handi bat ikastolako laguntxoaren partez!



† Zorionak **Nora!** Bihar urte potolo bat beteko duzu eta ikastolako laguntxoaren partez muxu handi bat bidaltzen dizugu



† Zorionak **bikote!** Koadrilakoen partez, ondo pasa zuen egunean.




**Pintxoetan aukera zabala**

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76




**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



15 igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
13	Ettxeberria (Santa Ana)	Ettxeberria	IBÁÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
14	Ettxeberria (Errosario)	Fernandez	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
15	Fernandez	Fernandez	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
16	Yudego	Yudego	
17	Zabaleta	Zabaleta	
18	Ettxeberria (Errosario)	Ettxeberria	
19	Ibañez	Ibañez	
20	Bidasolo	Bidasolo	



## [ TELEFONOAK ]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	IKASTETXEAK	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalizaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiture	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
		Ikastola	943 74 44 41
		Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
GARRAIOAK			
Eusko Trenbideak	943 74 04 42		
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

#### Astegunak:

7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

#### Larunbatak:

7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

#### Igandeak eta jaiegunak:

9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

### DONOSTIA - ELGOIBAR

#### Astegunak:

6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

#### Larunbatak:

8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

#### Igandeak eta jaiegunak:

12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

#### Astegunak:

6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

#### Asteburuak eta jaiegunak:

7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

#### Astegunak:

6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

#### Asteburu eta jaiegunak:

7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

### DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

### ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

### EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 13 BARIXAKUA ]

### 17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

### 18:30 IKASTOLAKO JAIALDIA

Ikastolako frontoian

### 21:30 PILOTA JAIALDIA

Goñati Pilotalekua (Mendaro)

Partidak: Zelaia-Esnaola; Otegi-

Zubillaga eta Gutierrez-Aldape

Antolatzailea: Mendaroko Udala

### 22:30 KONTZERTUA

Sotoko Hotsak

Taldea: "Mengele Quartet"

Antolatzailea: Sinuose

Sarrera: 3 euro

## [ 14 ZAPATUA ]

### 10:15 VII. MUSIKALDIA

Ongi-etorria eta aurkezpena

Plaza Handian

Antolatzailea: I. Bereziartua Musika

Eskola

### 10:30 VII. MUSIKALDIA

Prestautako 9 eszenatokietan

hainbat musika eskoletako taldeen

aktuzioen hasiera

### 14:00 VII. MUSIKALDIA

Luncha ordezkariei eta

gonbidatuentzako

Zaharren Biltokian

Oroigarri banaketa eskoletako

ordezkariei

# SINOPSISIAK

## «Los chicos del coro»





## 15:45 VII. MUSIKALDIA

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko Txistulari Taldearen kontzertua Plaza Txikian  
Zuzendaria: Aintzane Larreategi

## 16:30 VII. MUSIKALDIA

EHME Elkarteko Trikitixa Taldearen kontzertua Sigman  
Zuzendaria: Anabel Arrizabalaga

## 17:15 VII. MUSIKALDIA

EHME Elkarteko Akordeoi Taldearen kontzertua  
Zuzendaria: Maite Janeiro  
Plaza Txikian

Ondoren, Mausitxa Txaranga, txistulari eta trikitilarien kalejira

## 16:30 VII. MUSIKALDIA

Amaierako kontzertua  
EHMEko orkestra eta koruak, trikitixa, akordeoia, dultzaina, e.a. eta Haritz EDT.

## 18:30 VII. MUSIKALDIA

Gozategi anaien kontzertua  
Plaza Handian

## [ 15 DOMEKIA ]

### 06:00 ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

Irteera: Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

### 10:00 BARRETERAPIA SAIOA

Aubixa baserrian  
Izena emateko edo informazio gehiago: 943 74 17 15 telefonoan

### 11:00 EIBARKO UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

### 12:30 EIBARKO UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

## [ 19 EGUENA ]

### 10:30 "TIRA HARIARI" DANTZA IKUSKIZUNA

Taldea: La Dinamika y Eletiope  
6-10 urte bitartekoentzat  
Debabarrenako XXI.en eskolarteko antzerki erakusketa  
Herriko Antzokian

### 21:30 JON ARRETXEREN PROIEKZIOA

Izenburua: Mundua zazpi koloretan  
"Herri Bat Mendian Gora" egitasmoa  
Antolatzaileak: Morkaiko M.E. eta Elgoibarko Izarra

## [ 20 BARIXAKUA ]

### 22:00 ZINE FORUM-A

Hizlaria: Eskarne larrinaga  
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

### 22:15 "THE PUB IBILTARIA 9"

Taldea: Oskorri  
Herriko Antzokian

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Los Chicos del coro»

13, barixakua: 22:15  
14, zapatua: 19:30-22:15  
15, domekia: 19:30-22:15  
16, astelehena: 22:15  
«Old Boy» (Z.K.)  
19, eguena: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «El reino de los cielos»

13, barixakua: 19:30-22:15  
14, zapatua: 17:00-19:45-22:30  
15, domekia: 17:00-19:45-22:30  
16, astelehena: 19:30-22:15  
17, martitzena: 19:30-22:15  
18, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Millones»

13, barixakua: 19:30-22:15  
14, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
15, domekia: 17:00-19:30-22:15  
16, astelehena: 19:30-22:15  
17, martitzena: 19:30-22:15  
18, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

Zuzendaria: Christophe Barratier.  
Antzezleak: Gérard Jugnot, François Berléand.

1949. urtea. Clement Mathieu, langabezian dagoen musika irakaslea da eta zaindari gisa dihardu gazteak berrezteko ikastetxe batean. Bertako zuzendariaren heziketa sistema oso errepresiboa iruditzen zaio eta apenas lortu dezake, gainera, ikaslerik zailenak kontrolpean mantentzea. Mathieuk, hortaz, ez ditu ontzat ematen zuzendariaren lan metodoak eta musikaren bitartez ahaleginduko da ikasleengana hurbiltzen. Musikak ikasleen interesa izugarri pizten duela konturatuko da eta kantuaren magia ezagutarazten ahaleginduko da.

### «Old Boy» (Z.K.)



Zuzendaria: Park Chan-Wook.  
Antzezleak: Choi Min-sik, Woo Ji-tae.

1988. urteko egun batez Oh Dae-su, bere emazte eta alabatoarekin batera bizimodu normala daraman hiritar arrunta, bere etxe aurrean bahituko dute. Esmatzean, giltzapeturik dagoela ohartuko da, non eta zergatik dagoen jakin gabe. Zer gertatu zaion hausnartzen ari den bitartean albiste izugarri bat ikusiko du telebistaz: bere emaztea bortizki erahil dute. 2004ko Cannes-ko Zinemaldian Epaimahaiaren Sari Berezia eskuratu zuen Hego Koreako filme bitxi honek.

# Atzera begira



**1968**. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Argazki hau Elgoibarren odol emaleei omenaldia egin zitzaien lehenengo aldia aterata dago. Hiru odol emale omendu zituzten egun honetan: Casto Iraegi, Demetrio Vallejo eta Federiko Iriondo. Hirurak gai honetan historia handiko gizonak dira, jende askori eman baitzioten odola. Odol emaleen elkarte sortu aurretik ere, hauek gaixoen etxeetan ematen zuten odola. Argazkia Barrutia jatetxearen aurrean aterata dago, gaur egun, Banco Santander daogun lekuan. Ondo bazkalduta ospatu zuten egun hau. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak: Ezkerretik eskumara: **Casto Iraegi (†)**, **Tere Langara**, **Pedro analista eta Maria bere laguntzailea** (hiru hauek Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteko kideak ziren), **Juan Etxeberria (†)** (Elgoibarko zinegotzia), **Demetrio Vallejo (†)**, **Juan Jose Otazu** (Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteko presidentea), **Federiko Iriondo (†)**, **Jose Mari Mugerza (†)** eta **Eustakio Goñi** (Elgoibarko Odol Emaleen Elkarteko bokalak) eta **Ramon Maiztegi (†)** (Elgoibarko Odol Emaleen Elkarteko presidentea).

## I. URTEURRENA



2004ko maiatzaren 12an, 80 urte zituela hil zen  
*Manuel Gabilondo Unzueta*ren oroimenez urteurreneko meza izango da,  
larunbatean, maiatzak 14, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



## I. URTEURRENA



2004ko maiatzaren 10ean, 87 urte zituela hil zen  
*Jose Olazabal Izagirre*ren oroimenez urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzak 15,  
eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza Parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# oskorri & the pub ibiltaria



Elgoibarko Udala



Foru Aldundia



Eusko Jauriaritza

Maiatzak 20, OSTIRALA  
Gaueko 22:15ean  
Herriko Antzokian



2 eta 3 gelako 48 etxebizitza

117 garaje eta 76 trasteleku



Argibideak:  
ANTT CONSULTORÍA  
Antonio Arrillaga, 1 behea  
20870 Elgoibar

**Tel.: 943 74 80 92 ■ Fax: 943 74 82 42**

**info@infolur.net - www.infolur.net**



# MUSIKALDIA 2005 ELGOIBAR



2  
0  
0  
5

“Musika gure laguna”

Maiatzak

14



BABESLEAK:

